

## GAURKO GAZTEDIAN BIZITZA

---

**Bixente BARANDIARAN**

Garai batetik oso aldatua dago. Aurten berrogei urte asi nitzan Ramon Vizcaino-rekin lanean. An ikusten nituan amalau urtera arte eskolan ibilitakoak orduan goizeko zortzitako lantokira. Eta lengo langillearen ondoan zerbait ikasten asten ziran. Arratsaldean gu baiño ordubete lenago irteten ziran eskolara joateko. Ordubete ura asko edo gutxi nagusiak ordainduta beintzat. Ikasten zuten lanean eta eskolan. Emeretzi edo ogei urterako opizioaren jabe eta eskola ere bai. Lanerako jarrita beintzat. Gaurko gazteak ez daukate orrelakorik. Amalau amabost urte gurasoak asko lanik gabe seme alabari karrera emateko nundik askok ez degu ikusten zer bizimodu tristea iritsi zaien pameli askori. Zer ikusi edo zer pentsatu aundiak daude gaur toki askotan. Eta gazte asko dabilta kalean zer egiñik ez dutela, alkarregana bilduta ondo ikasi bearrean gaizki ikasten dutela. Bizi modu tristea ekarri du lanik ezak eta danak nondik datoz. Nik ere ez jakiñean esango nuke munduko sinismenik ezak ekarri digula, gorrotoa eta inbidia.

Ontaz aurrera mundu onetan  
ez dadukagu gauz onik  
nola ezin dan emen billatu  
au zuzentzeko gizonik  
nere aurrean jarriko balitz  
baietz esango lukenik  
gezurrarekin ez engañatu  
laister esango diot nik.

Pazienzia artu dezagun  
zertako asi txarrean  
aber berriro arkitzen geran  
lengo oitura zarrean  
bajau dedilla gorroto txarra  
gaur dago indarrean  
Jaun zerukoa lagun zaiguzu  
nola gauden bearrean.